

EUSKO JARLARITZAKO GOI-KARGUEN HARRERA-GIDA

EMAKUMEEN ETA
GIZONEN
BERDINTASUNA
SUSTATZEN DUEN
ADMINISTRAZIOA



AURKIBIDEA	Or.
1. <u>Testuinguruan kokatzea</u>	3
2. <u>Oinarrizko kontzeptuak</u>	6
3. <u>Oinarrizko prozedurak</u>	7
4. <u>Aplikatu beharreko araudia</u>	10
5. <u>Laguntza-dokumentazioa</u>	10
6. <u>Berdintasun-egiturak</u>	11



1. TESTUINGURUAN KOKATZEA

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako aginduek eta eskubideek eragina izan behar dute politika publiko guztietan. Horren harira, **lege hori betetzea behar estrategikoa da demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte bidezkoagoa, kohesionatuagoa eta sozial eta ekonomikoki garatuagoa eraikitzeko.**

Euskadiko emakumeen eta gizonen errealitatea aztertuz gero,¹ ikus dezakegu gizartea egiturazko desberdintasunetan oinarrituta dagoela, eta, ondorioz, desberdintasun-errealitate hori ezagutzeak eta sakontzeak lagunduko du **Eusko Jaurlaritzaren erronkak identifikatzen berdintasunaren alorrean.** Laburbilduta, erronka nagusi gisa honako hauek nabarmenduko ditugu esku-hartze publikoa orientatzeko:

- **Balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatu beharra dago.** Gaur egun berdintasunak gero eta pisu handiagoa du ordenamendu juridikoan, instituzionalean eta sozialean. Hala ere, nabaria da oraindik ez dagoela **benetako berdintasunik**, eta, gainera, emakumeak eta gizonak ez ditugula berdinean aitortzen eta balioesten. Arlo publikoan matxismoa eta androzentrismoa ezabatzeko lan egin behar da oraindik, bai eta emakumeentzako hiritar-eskubideak hobetzeko aurrerapen juridikoak sendotzeko ere. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa da emakumeak ahalduntzea:
 - Pertsonalki -autonomiaren eta beren bizitzan gaineko kontrolaren bidez-.
 - Kolektiboki -beren nortasunaren eta genero-baldintzaren kontzientzia hartuz-: ekonomikoki, lan-merkatuan eta enpleguan ahalduntzeko, eta pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko edo desagerrarazteko, gehienbat emakumeei eragiten baitiete horiek-; emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako, emakumeei beren herritartasuna garatzen eta finkatzen laguntzeko, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko arlo zibil eta politikoetan emakumeek parte-hartze handiagoa lor dezaten.
- **Gizarte-antolakunde erantzukide batean aurrera egiten jarraitu behar da.** Euskal gizartean berdintasunaren aldeko diskurtsoa gero eta hedatuago badago ere, errealitatea aintzat hartuta, diskurtso hori ez dator bat emakumeen eta gizonen arteko funtzio eta rolen ezberdintasunekin, edo horien denboraren erabilera edo gizarte-balioarekin. Emakumei etxeko esparrua esleitu izan zaie, eta gizoni, partaidetza publikoa; eta, aurrerapenak lortu badira ere, bereizketa horrek emakumeak oraindik ere desabantailan jartzen ditu aintzatespen eta gizarte-ospearen esparruetan. Sexuen araberako lan-banaketak eta ekoizpen eta ugalketaren sexuaren araberako esleipen tradizionalak gizon eta emakumeengan gizarte-antolaketa jakin bat sortu zuen, eta sortzen du oraindik. Horretan, sostengua, ekoizpena eta arlo publikoa erlazio, rol eta balio nagusiki maskulinoa eta gizonetzkoena da; zaintza, ugalketa, etxeko arlo pribatua, berriz, erlazio, rol eta balio nagusiki femeninoak eta emakumezkoenak dituen espazioa da.
- **Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazten jarraitu beharra dago.** Emakumeen aurkako indarkeria genero-desberdintasunen eta -diskriminazioen adierazpen larrienetako bat da, eta indarkeria horren kontrako gaitzespena gero eta esplizituagoa da erakunde publikoen eta pribatuen artean, bai eta gizarte

¹ Genero-arrailei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, zenbait iturri kontsultatu daitezke: [Eustat \(berdintasun atala\)](#) . [Urteko txostena](#). [Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zenbait datu](#). [Emakunde](#).



zibilaren eta herritarren artean ere. Emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren lanari esker, emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatzeko ideia agenda politiko demokratiko guztietan dago, eta inoiz ez bezalako bilakaera izan dute ordenamendu juridikoak, instituzionalak eta egoera horretan dauden emakumeentzako baliabide espezifikoek. Nabarmendu behar da **genero-desberdintasuna dela emakumeen aurkako indarkeriaren oinarrietako bat**, eta, horrenbestez, indarkeriaren kontrako borroka estu-estu lotuta dago gizartearen balio-aldaketarekin. Hori horrela, eraldaketa hori funtsezkoa da indarkeria behar bezala eta behin betiko ezabatzeko eta konpontzeko. Estrategia politikoek sentsibilizazioari eta prebentzioari ekin behar diete aldi berean, bai eta detekzioari eta arretari ere.

Erronka horiei ekiteko xedez, **erantzukizun politikoak partekatuta, EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan**, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko **berdintasunaren helburua** EAEko politika, plan eta sektore-programa guztietan **integratzeko beharra** Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasota dago, 18.1. artikuluan. Nabarmendu beharra dago, genero-ikuspegia agintaritzatza eta administrazio publikoen lanean benetan integratzeko, bermatu behar dela administrazio publikoekin kontratuak eta hitzarmenak sinatzen dituzten edo diru-laguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuek 4/2005 Legearen 2.3. artikulua betetzen dutela².

Bestalde, lege horren 15. artikuluan hau jartzen du: **«Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean**, eta legegintzaldia hasi eta sei hileko epean, **plan orokor bat onartuko du**, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dituen». Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak. **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari** dagokio plan horiek osatzea, EAEko berdintasun-politikak bultzatzeaz, aholkatzeaz, planifikatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den organoa baita. Horiek eratzeko, gainerako euskal administrazio publikoekin **batera** lan egin behar du, parte-hartze sozialeko prozesuak ahalbidetzeko. Halaber, honako hau ezartzen du: **«Aurreikusitako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu (urte anitzekoak eta urtekoak)»**.

Adierazi behar da gaur egun Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek egitura propioen aholkularitza eta laguntza dutela. Horra hor **berdintasun-politikak indartzeaz eta koordinatzeaz arduratzen diren berdintasunerako unitateak**, 4/2005 Legearen 11. artikuluan zein [azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan](#) arautzen direnak. Horren harira,

² Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko informazio gehiagorako:

[Gobernu Kontseiluaren akordioa, 2008ko apirilaren 29koa](#). «Euskal Autonomia Erkidegoak eta bere sektore publikoak eginiko kontratazioetan gizartea, ingurumena eta beste politika publiko batzuk aintzat hartzen dituzten irizpideak txertatzeari buruzkoa».





azpimarratu behar da emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitate horiek betetzen duten zeregina funtsezkoa dela genero-ikuspegia politika, plan, programa eta sektore-ekintza guztietan txertatzeko, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan propioak eratzeko ere. Hori dela eta, **politikoki unitate espezializatu horiek koordinatzea estrategikoa da** eta, bereziki, funtsezkoa izango da Eusko Jaurlaritzako sailetan berdintasun-politiketan ardura zuzena duten karguen, organismo autonomoen edo erakunde publikoen arteko koordinazioa eta elkarrizketa.



2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Zer ulertzen dugu emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ari garenean?

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean berdintasunak bi adiera ditu:

- Alde batetik, **sexuagatik zuzeneko eta zeharkako bereizketarik ez egotea** –tratu-berdintasuna-
- Bestetik, emakumeek eta gizonak eskubide guztiak **berdintasun-egoeran benetan erabili ahal izatea**, eta horren barruan sartzen da boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatu eta eskuratu ahal izatea -aukera-berdintasuna-.

Zer estrategia erabili behar ditugu?


Legearen aldetik dagoen berdintasuna ez da benetakoa berdintasuna, eta, horregatik, botere publikoek esku hartzeko **estrategia duala**³ ezarri behar dute, berdintasuna benetakoa izateko behar diren baldintzak sortzeko:

- 4/2005 Legearen arabera, **ekintza positiboan neurriak** espezifikoak eta aldi baterakoak dira; eta bizitzako esparru guztietan sexuaren araberako izatezko desorekak ezabatzea edo gutxitzea da haien helburua.
- 4/2005 Legean zehazten da zer den **genero-ikuspegia** (genero-mainstreaming-a) **sistematikoki txertatzea**: «emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan». Zentzu horretan, Europako Kontseiluko emakumezko aholkulari espezialisten taldeak honako hau adierazten du: «Genero-mainstreaminga prozesu politikoaren antolaketa (berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta ebaluazioa da, eta, beraz, neurri politikoak hartu ohi dituzten eragileek genero-berdintasunaren ikuspegia sartu behar dute politika guztietan, maila guztietan eta fase guztietan.

Sakontzeko, honako glosario hau kontsultatu daiteke edo aholkularitza eta informazioa eskatu ahal zaizkie emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateei:

KONTZEPTUEN GLOSARIOA

³ Estrategia biak osagarriak dira eta jardun publikoaren aldi berean egiten dira, alde batetik, epe laburrean eta ertainean helburuak lortzeko, hainbatetan emakumeen behar praktikoei erantzuna eman nahi dieten ekintza positiboan bitartez (emakumeek beren generoagatik dituzten zailtasun materialak eta berehalakoak konpontzea); eta, bestetik, epe ertainerako edo luzerako mainstreaming-eko jarduketa publiko zabalagoa lortzeko, interes estrategikoak betetze



3. OINARRIZKO PROZEDURAK

Genero-ikuspegia euskal botere publikoen ekintza eta politika guztietan benetan **txertatzeko**, honako hauek bermatu behar dira:

ABIAPUNTUKO BALDINTZAK

- **Berdintasun-helburua politika guztietan sartzeko konpromiso politiko sendoa izatea.**
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politika espezifikoak indartzea.**
- **Genero-harremanei buruzko eta hori administrazioaren prozeduretara eramateari buruzko ezagutza zabala eta zehatza izatea.**
- **Behar beste finantza-baliabide eta langile izatea.**
- **Erakunde- eta antolaketa-egiturak eta -prozesuak aldatzea.**
- **Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea bultzatzea.**



Aldez aurretik adierazi denez, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzeko, **Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean**, eta lehenengo sei hilabeteetan, **plan orokor bat onartuko du**, EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasotzeko. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparaei eta gizarteari parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak».

Halaber, honako hau ezartzen du: «Aurreikusitako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu (urte anitzekoak eta urtekoak)**». Berdintasunaren arloko helburu estrategikoak eta operatiboak ezartzeko erreferentzia da. Aldez aurretik egindako diagnostikoetan finkatzen dira helburu horiek. Berdintasunerako planak **funtsezko tresna dira arlo horretan jarduketa publikoa koordinatua, koherentea, efizientea eta eraginkorra izateko**. Berriro ere, berdintasunaren alorrean aditu diren langileek plangintza-prozesu guztietan betetzen duten ezinbesteko zeregina nabarmendu behar da, gaia koordinatzen dutelako eta beti dutelako agintaritzaren babesa. Era berean, ezinbestekoa da horiek genero-ikuspegia txertatzearen inguruko aholkularitza ematea sektore-eremuan, **kalitateko berdintasun-politikak bermatzeko**. Sailtako berdintasun-planak onartu baino lehen, planei buruzko txostena egin behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak.

NOLA LOR DAITEKE EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK AKTIBOKI BULTZATZEA?

- 1 LEGEGINTZAN ETA URTERO BERDINTASUNERAKO PROGRAMA-DOKUMENTUAK ERATUZ.
- 2 GENERO-IKUSPEGIA ADMINISTRAZIOAREN PROZEDURA GUZTIAN TXERTATUZ.
- 3 ZENBAIT JARDUERA-ARLOTAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK EZARRIZ.

Sailaren berdintasunaren gaineko Legegintzaldi Plana prestatzeko prozesuaren fitxa:



Aipatu behar da emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak **direla berdintasuna sustatzeko eta lortzeko jarraitu behar den bidea adierazten duen iparrorratza.**

Honako hauek dira legearen aginduak betetzeko planen egitura finkatzen duten atal handiak:

Administrazioaren jardunean berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko neurriak

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeko II. tituluan hainbat neurri ezarri dira, EAEko administrazio publikoaren eta agintaritzen jardunean **genero-ikuspegia txertatzeko**

Berdintasun-alorreko esku hartzeko euskarrietan egituratutako gizarte-aldaketarako erronkak

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeko III. tituluko aginduak betetzeko neurrien multzoa, berdintasunari dagokionez jarduketa-arlo bakoitzean jarduketa publikoa orientatzekoak

SUSTATZEA/SOTZEA

Berdintasunerako plangintza

Berdintasunerako unitateak

Berdintasunerako koordinazio-egiturak

Epaimahaietan eta auzitegietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua

Hizkuntza edota beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea

GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA

Estatistiketan eta ikerketetan

Prestakuntza-jardueretan eta enplegu publikoan sartzeko eta sustatzeko hautapen-prozesuetan (berdintasunarekin lotutako edukiak)

Aurrekontuetan

Sektoreko eta zeharkako planetan

Kontsultarako eta parte hartzeko organoetan

Araudian (berdintasun-printzipioa)

Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan

- Balio-aldaketa beharrezkoa eta emakumeen ahalduzko pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatzeko

- Gizarte-antolakuntza erantzunkidea garatzeko.

- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko



4. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Dagoeneko adierazi denez, euskal botere publiko guztiek bermatu behar dute emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko indarreko araudia betetzen dela:

→ Alde batetik, **araudi orokorra**, zeinaren zehaztasunak topatu baititzakegu honako esteka honetan:

[Emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia.](#)

→ Beste alde batetik, **arlo edo sektore bakoitzerako araudi espezifikoagoa** dago, eta berdintasun-arloko langile tekniko adituek haren berri emango dute beharrezkoa denean.

Gainera, aipatzeko modukoa da, era berean, **berdintasun-printzipioa txertatzea sustatu behar dutela**, **Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakia betetzeko eratzten duten araudian**. Erabaki haren bitartez, generoaren araberako eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu eta desberdintasuna ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ezarri ziren.

5. LAGUNTZA-DOKUMENTAZIOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak egoki ezartzeko hainbat material eta baliabidek lagundu dezakete. Jarraian, informazio hori aurkitzeko **webgune** garrantzitsuenak adierazten dira:

Erreferentziako webguneak:	
Emakunde	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna Politika Publikoetan • Berdintasunerako Planak • Argitalpenak • Emakunderen intraneta
Jakina	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun atala • Saileko Berdintasunerako Programak


Sakontzeko edo laguntza handiagoa lortzeko, berriz ere, aholkularitza eta informazioa eskatu ahal zaizkie **emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateei**.



6. BERDINTASUN-EGITURAK

Jarraian, era eskematikoan aurkezten dira berdintasun-politiken arloko oinarrizko egiturak eta arlo horretan eskumena duten unitateak. Azken horietara jo daiteke aholkularitza eskatzeko:


Arlo honetan, Emakunde da organismo erantzule gorena, eta, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, erakunde publikoen politikak bultzatu, indartu, aholkatu eta koordinatzen ditu, eta, gainera, horien jarraipena egiten du.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzardea berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzak egiten dituen jarduerak koordinatzeko organoa da. Batzardeak laguntza eta aholkularitza emateko talde tekniko bat du, **Sailarteko Talde Teknikoa** izeneko. Halaber, beste talde tekniko batzuk ere ezar daitezke, berariazko edo sektoreko gaiak landu behar direnean.

Eusko Jaurlaritzako sailek, aldeztu aurretik esan den moduan, **berdintasunerako unitate** izeneko egitura propioak dituzte aholkularitzarako eta laguntzarako, eta unitate horiek arduratzen dira sailetan berdintasun-politikak bultzatzeaz eta koordinatzeaz. Gainera, beste organismo autonomo edo erakunde publiko batzuk arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak adierazten duenez, horiek ere eduki behar dituzte berdintasun-unitateak. Sailek barruko zeharkako koordinazio-lana egiteko aukera dago, **Saileko Talde Teknikoak (GTD)** sortu direlako eta horiek funtzionatzen dutelako. Lantalde horiek berdintasunerako unitateek zuzentzen dituzte, eta haien funtzioak Sailarteko Batzardearen bitartez egokitu ziren 2008ko martxoaren 12an.





Nabarmengarria da, 4/2005 Legearen 14. artikulua betetzeko, **lege horretan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak hartzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatu eta zehaztu behar dituela administrazio autonomikoak aurrekontuetan.** Zentzu horretan, gainera, berdintasun-unitateentzako aurrekontu-zuzkidura lehentasunezkoa da beren funtzioak benetan egikaritzeko.

Azkenik, esan behar da berdintasun-politikak koordinatzeko bestelako tresnak daudela:

- [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea](#)
- [Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundearteko II. Hitzarmena.](#)

Informazio gehiagorako:

[Sustapen eta koordinazio egiturak](#)

